

Topalekua

44zk. 2008ko febrero

febrero 2008 - n.º 44

1. eta 2. or.: *Gizarte Kontseiluak EHU-ko aurrekontua onartzen du 2008rako, eta 437,1 milioi eurotakoa da, iazkoa baino %17,09 gehiago.*

3. eta 4. or.: *Gizarte Kontseiluak ekitaldi honetarako duen aurrekontuaren 478.000 euro 2008ko Plan Eragilarentzako dira.*

GIZARTE KONTSEILUAK EHU-KO AURREKONTUA ONARTZEN DU 2008RAKO, ETA 437,1 MILIOI EUROTAKOA DA, IAZKOA BAINO %17,09 GEHIAGO

Joan den otsailaren 14ean egin zen EHUKo Gizarte Kontseiluko Ez-ohiko Osoko Bilkurak, EHUKo Gobernu Kontseiluak aurkeztutako Proiektua aztertu ostean, 2007rako Aurrekontua onestea erabaki zuen. Aurrekontua 437,1 milioi eurotakoa da, aurreko ekitaldian baino 63,7 milioi euro gehiago (%17,09 gehiago).

Gizarte Kontseiluko Osoko Bilkurak Aurrekontuari buruzko txosten bat gaineratu zuen onartze hitzarmenean. Txosten horretan, berritasun nagusienak aipatzen dira, baita kapituluka egindako ekonomia-finantza azterketa bat eta programak eta gastu unitateak ere; azkenik, hobetzeko zenbait aholku ematen dira.




EHUKo Gizarte Kontseiluaren Oz-ohiko Osoko Bilkuraren une bat.

GIZARTE KONTSEILUAK EHU-KO AURREKONTUA ONARTZEN DU 2008RAKO, ETA 437,1 MILIOI EUROTAKOA DA, IAZKOA BAINO %17,09 GEHIAGO


Aipatu txostenean, Gizarte Kontseiluak Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretatik datozen diru-sarreraren areagotze nabarmena azpimarratzen du – 2007an baino ia 64 milioi euro gehiago – bai eta azken 5 urteotan, zehazki 2004. urteaz geroztik, % 54,4 igo den aurrekontuaren eboluzioa ere - % 38,6 inflazioaren eragina deskontatzen bada -. Izan ere, 283 milioi eurotik 437 milioi eurotara pasa da aurrekontua, finantziazio egonkorragoa izateko joera berresten dela.

Gomendioak

Azken gomendioetan, Osoko Bilkurak Euskal Herriko Unibertsitateari gomendatzen dio ahalik eta azkarren kanporatzea gizarte aurreikuspeneko borondatezko sistemaren kudeaketa. Bilkurak, halaber, 2006-2010eko Inbertsioen Hainbat Urterako Planean egon diren funtsezko aldaketak direla-eta, aurrez ikusitako jarduerak eta zenbatekoak jasotzen dituen dokumentu berri bat eratzeko eta onartzeko gomendatzen dio, ondoren, Gizarte Kontseiluak onestuko duena.



Inflazioaren eragina deskontatuz, 2004-2008 urte bitartean aurrekontuak izandako gorakada 108 milioitakoa izango zen (%38,16), eta haren bilakaera, berriz, ondokoa:



GIZARTE KONTSEILUAK EKITALDI HONETARAKO DUEN AURRE-KONTUAREN 478.000 EURO 2008KO PLAN ERAGILEARENTZAKO DIRA

Otsailaren 14ean egindako Kontseiluaren Ohiko Osoko Bilkurak Gizarte Kontseiluaren Aurrekontua onestu zuen, 2008ko ekitaldirako. Aurrekontua 1,3 milioi eurotakoa da, eta horietatik 264.000 euro langileen gastuetarako zuzenduko dira eta 995.000 euro, berriz, funtzionamendu gastuetarako.

Azken atal honetan aipatzekoak dira Gizarte Kontseiluaren Plan Estrategikoak jasotzen duen 2008ko Plan Eragilean aurrez ikusten diren ikerketak eta txostenak egitera zuzenduriko 478.000 euroak. 2008ko Plan Eragilearen helburuen artean, besteak beste, Unibertsitatearen irudia sendotzea dago, goi-mailako irakaskuntza publikoan gizartearen parte hartzea areagotzea eta Kontseiluak bi horien artean duen bitartekari lana finkatzea. 2008ko Plan Eragilean jasotzen diren proiektuak ondokoak dira:

2007an hasitako proiektuak

Enplegu Behatokiaren Eguneratzea
Estatistika Urtekariaren Eguneratzea
Gaitasunen gaineko Eskarien ikerketaren jarraipena
Produktu eta zerbitzuen Katalogoaren jarraipena (marketin)

2008ko Proiektu Berriak

Foro publikoa
Herri-administrazioen beharrak antzematea
Unibertsitate-zerbitzuen etekinen adierazleak
Plan estrategikoaren berrikusketa

Bestelako hitzarmenak


Gai-zerrendako beste puntu batean, Kontseiluak onartu egin zuen EHUren, Gizarte Kontseiluaren eta Egailanen arteko Hitzarmena. Hitzarmen horren helburua 2003-2004ko ikasturteko Unibertsitateko Tituludunen Lan Merkatuaren Behatokia gauzatzea da.

Gogoan izango denez, ikerketa gauzatzen den seigarren aldia dugu haxe, eta hitzarmen horren pean, promozio horretan egresatutako ikasle guztiei telefono bidez elkarriketatuko zaie. Horren xedea egiazta daitekeen informazioa erdiestea da, agintari akademikoak erabakiak

bideratu eta modu objektiboan hartzeko; ikasleak laneratze-prozesuan laguntzeko; lan merkatuaren egoera ezagutzeko bai eta haren ezaugarriak ere, eta hezkuntza-sistemaren eta sistema emankorraren arteko harremana ere bai. Hartara, lan politikaren barruan, ekintza espezifikoak moldatzea eta definitzea ahalbidetzen duen lanabes bat edukiko da.

Bestetik, Novia Salcedo Fundazioak Gizarte Kontseiluak eskatutako Unibertsitateko Lan Behatokiari buruzko azken txostena aurkeztu zuen Osoko Bilkuran. Txostenean bertan, enpresa eta erakundeek tituludunak lehen aldiz kontratatzeke egiten duten eskaria aztertzen da. Behatokiak prentsan argitaratzen diren lan eskaintzak, oposizioak, prestakuntza praktikoko bekak, borondatezko praktikak, fakultate eta kolegio profesional ezberdinetan jasotako eskaintzak eta enpresei gauzatutako inkesten emaitzak jasotzen ditu.

6.633 lanpostu, ezagutza-esparruen arabera



Osoko Bilkurak, halaber, EHUko ikasketa osagarrien matrikula prezioak baliozkotzea erabaki zuen. Ikasketak “Psikoterapia Laburrak” eta “Munduko errealitateari buruzko ikerketak: Ekialde Ertaina, analisi globala” dira, eta haien prezioak 150 € eta 25 € dira kreditu bakoitzeko, hurrenez hurren.

Graduondoko Programa Ofizialei dagokienez, Kontseiluak euskaraz ematen diren ikasketak areagotzea proposatu zuen, eta 2008-2009 ikasturterako, ondorengo eskaintza ezartzea onestu zuen:

INGURUMENA ETA BALIABIDE NATURALAK

- Ingurugiro agrobiologia (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Kutsadura eta Ingurumen Toxikologia (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Bioaniztasuna, Ekosistemen Funtzionamendua eta Kudeaketa (Masterra eta Doktoregoa)

MATEMATIKAK

- Matematika Ikerketaren hastapenak (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Matematika Modelizazioa, Estatistika eta Zenbaketa (Master Ofiziala)

FISIKA, KIMIKA ETA MATERIALAK

- Kimika Aplikatua eta Material Polimerikoak (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Nanoscience (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Kimika Sintetikoak eta Industrialak (Master Ofiziala eta Doktoregoa)

BIOMEDIKUNTZA, BIZITZA KALITATEA ETA OSASUNA

- Biologia Molekularra eta Biomedikuntza (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Elikadura Kalitatea eta Segurtasuna (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Farmakologia, Sendagaien Garapena, Ebaluazioa eta Erabilpen Arrazionala (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Auzitegiko Analisia (Master Ofiziala eta Doktoregoa)

INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOEN TEKNOLOGIAK

- Informazioaren eta Komunikazioen Teknologia Sare Mugigarrietan – TICRM (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Landatutako Sistemen Ingeniaritza (Master Ofiziala)
- Sistema Elektronikoen Aurreratuak (Master Ofiziala)

INGENIARITZA ETA TEKNOLOGIA INDUSTRIALA

- Proiektuen Zuzendaritza – EURO MPM (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Prozesu Kimikoen Ingeniaritza eta Garapen Iraunkorra (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Ingurugiro Ingeniaritza (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Material Aurreratuak Ingeniaritza (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Material Berriztagarrien Ingeniaritza (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Teknologia eta Ingurugiro Kudeaketa (Master Ofiziala)
- Ingeniaritza Mekanikoa eta Fabrikazioa (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Ingeniaritza Energetikoa Iraunkorra

KAZETARITZA ETA KOMUNIKAZIOA

- Kazetaritza Multimedia El Correo- EHU (Master Ofiziala)
- (Master Ofiziala)

SOZIOLOGIA JURIDIKOA

- (Master Ofiziala eta Doktoregoa)

FEMINISMOA, GENEROA ETA BERDINTASUNA

- Ikerketa Feministak eta Generozkoak (Master Ofiziala eta Doktoregoa)

NAZIOARTEKO IKASKETAK ETA GARAPENERAKO LANKIDETZA

- Nazioarteko Ikasketak (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Globalizazioa eta Garapena (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Migrazioak: Prozesu Migratzaileen Ezagutza eta Kudeaketa (Master Ofiziala)
- Nazioarteko Garapena eta Lankidetzak (Master Ofiziala)
- Komunitatearen Parte hartzea eta Garapena (Master Ofiziala)

BERRIKUNTZA ETA EZAGUTZA

- Berrikuntzaren eta Ezagutzaren Kudeaketa (Master Ofiziala)

GIZA BALIABIDEAK ETA LAN ARRISKUAK

- Giza Baliabideen eta Enpleguaren Kudeaketa (Master Ofiziala)

EKONOMIA

- (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Bankua eta Finantza Kuantitatiboak (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Integrazio Ekonomikoa (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Ekonomia: Analisi Ekonomikoaren Lanabesak (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Finantzak eta Finantza Zuzendaritza (Master Ofiziala)
- Globalizazioa: Gizarte Prozesuak eta Ekonomia Politikak (Masterra eta Doktoregoa)

HEZKUNTZA

- Psikodidaktika: Hezkuntzaren eta Didaktika Espezifikoen Psikologia (Masterra eta Doktoregoa)

PSIKOLOGIA

- Psikologia: Norbanakoa, Taldea, Erakundea eta Kultura (Master Ofiziala eta Doktoregoa)

FILOSOFIA

- Filosofia Mundu Globalean (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Filosofia, Zientzia eta Baloreak (Master Ofiziala eta Doktoregoa)

HISTORIA

- Historia Garaikidea (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Arkeologia Profesionala: Ondare Arkeologikoaren Kudeaketa Integralerako Lanabesak (Master Ofiziala eta Doktoregoa)
- Europa eta Mundu Atlantikoa: Boterea, Kultura eta Gizartea (Master Ofiziala eta Doktoregoa)

HIZKUNTZALARITZA ETA LITERATURA

- (Master Ofiziala eta Doktoregoa)

ARTEA

- Ikuskizunen Arteak eta Zientziak (Master Ofiziala)
- Zeramika: Arte eta Funtzioa (Master Ofiziala)